



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILEKO KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARIAREN EBAZPENA, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKABIDEA ONARTZEN DUENA.

Ebazpena ematen duen administrazio-organoa: Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza.

Prozedura: Informazio publikoa eskuratzea.

Espedientearen zenbakia: 2019/000116

Eskatzailea:

Informazioa eskuratzeko modua: Elektronikoa.

Eskatutako informazio publikoa: *2017an egindako 'Euskadi Basque Country' markaren inguruko publizitatearen inguruko informazioa: non argitaratu den publizitate hori, zein irismen izan duen publizitateak eta kontratuari dagokion espediente edo/eta memoria.*

Eskatutako informazioa daukan administrazio-organoa: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza.

Egitateak

2019ko apirilaren 9an, [redacted] jaunak informazio publikoa eskuratzeko eskabide bat aurkeztu du. Honako eduki honekin, hain zuzen:

"2017an egindako 'Euskadi Basque Country' markaren inguruko publizitatearen inguruko informazioa.

Eskaera: Kontratu publiko honi buruzko informazioa: <http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-2083/eu/y46aRevasconWar/datosContratosC/consulta?idContrato=31127>

Kontratuaren kodea: KIROLAK 2017/049582_000000000000000000000001

Non argitaratu den publizitate hori, zein irismen izan duen publizitateak eta kontratuari dagokion espediente edo/eta memoria lortu nahi nituzke".

Administrazio-organok izapidegileak informazio publikoa eskuratzeko eskabidea aztertu du, eta, eskatutako informazioa, gaiari buruz eskumena duen sail honen atalari eskatu dio, hain zuzen ere, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari. Bestalde, eskatzaileak ez du eskabidean azaltzen zergatik eskatzen duen informazio hori; dena den, motiboak azaltzea ez da beharrezkoa ebazpena emateko.

Zuzenbideko oinarriak

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean dago araututa informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. 19/2013 Legearen 12. artikulua honako



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1M32-VV1X bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1M32-VV1X en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

hau ezartzen du: "Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan. Halaber, autonomia-erkidegoko araudia aplikatu beharko da, betiere bakoitzaren eskumenen barruan".

19/2013 Legearen 14. artikulua informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak ezartzen ditu eta honako hau jasotzen du: "Mugak xedearen eta babes-helburuaren arabera izango dira, eta kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera, bereziki, informazioa eskuratzeko justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiagorik ote dagoen". 15. artikulua, bere aldetik, datu pertsonalen babesa arautzen du.

17. artikulua araberak: "Eskatzaileak ez du arrazoitu beharko zergatik eskuratu nahi duen informazioa. Hala eta guztiz ere, informazio hori eskatzeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu, eta, ebazpena emateko, kontuan hartu ahal izango dira. Hala eta guztiz ere, eskaera ez arrazoitzeak ez du berez eskaera ezestea eragingo".

19/2013 Legearen 19.3. artikulua hurrengoia ezartzen du: "Eskatutako informazioak hirugarren batzuen eskubide edo interesei eragin badiezaieke, eta behar bezala identifikatuta badaude, hamabost eguneko epea emango zaie nahi dituzten alegazioak egiteko. Eskaera-egileari horren berri eman beharko zaio, eta, era berean, jakinaraziko zaio ebazpena emateko epea eten egiten dela harik eta alegazioak hartzen diren arte edo alegazioak aurkezteko epea igarotzen den arte".

Aurkeztutako eskaeraren edukia eta aztertutako araudia kontuan hartuta, egiaztatu da lehengoak legeak ezartzen dituen baldintzak bete dituela eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeari dagokion edukia betetzen dela kasu honetan, ondorioz, bidezkoa da eskatu den informazio publikoa bere osotasunean eskuratzeko onartzea.

Gobernu Kontseiluak 2015eko urtarrilaren 13an onartutako erabakiaren eranskinean ezarritako prozedurari eta antolamendu-ereduari jarraitu zaie, informazio publikoa eskuratzeko eskabidearen instrukzioa egiteko.

Ebazpena

jaunak aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskabidea bere osotasunean onartzen da, eskatutako informazioa ebazpen honen eranskinean gehituta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezarritako informazio publikoarekin bat datorrelako.

Errekurtsioak

Ebazpen honen kontra, honako hauek aurkeztu ahal dira:

- **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari erreklamazioa** aurkeztu ahal zaio.

Aurkezteko epea: **hilabete bat**, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hiru hilabeteko epea egongo da ebazpena emateko eta jakinarazteko. Epe hori igarotakoan, ezetsizat joko da erreklamazioa. Administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ezin izango da aurkeztu, aurkeztutako erreklamazioa espresuki ebatzi arte edo presuntzioz ezetsi arte.

- Edo, bestela, **Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** jarri ahal zaio, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari.

Aurkezteko epea: **bi hilabete**, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Sinadura

Almudena Otaola Urkijo

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Eranskina

Eskatutako informazioa: 2017an egindako 'Euskadi Basque Country' markaren inguruko publizitatearen inguruko informazioa.

Eskaera: Kontratu publiko honi buruzko informazioa: <http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-2083/eu/y46aRevasconWar/datosContratosC/consulta?idContrato=31127>

Kontratuaren kodea: KIROLAK 2017/049582_000000000000000000000001

Non argitaratu den publizitate hori, zein irismen izan duen publizitateak eta kontratuari dagokion espedientea edo/eta memoria lortu nahi nituzke

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren Erantzuna:

KIROLAK 2017/049 kontratua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariaren 2017ko uztailaren 10eko ebazpenaren bidez esleitu zitzaion Euskadiko Xake Federazioari. Publizitate hori hiruhileroko Xake aldizkari digitalean argitaratu zen, eta zuzendaritza honi adierazi zitzaionez, federazioko kide guztiengana zabaldu zen.

Espedientea eransten da:

Kontratoa_KIROLAK_2017_049_Censurado.PDF